

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Interesdunari jakinaraztea (espediente zk.: 16011P-53/2016), helbide ezezaguna baitu, udalaren biztanle erroldan ofizioz baja emango zaiola, arauz kanpo erroldatuta egoteagatik

Administrazio egintza jakinaraztea. Interesduna: Najem Boukedia El Mahfoud.

Erabaki hau ezin izan zaionez interesdunari jakinarazi, orain duen helbidea ezezaguna baita, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 59.5 artikuluan agindutakoa betez, BOEn argitaratu aurretik eta aukerakoa izanik, iragarki hau ALHAOn eta udal honen iragarki taulan argitaratuz egiten zaio alkatearen 16/297P Ebazpenaren jakinarazpena, hitzez hitz honela dioena:

“2016ko irailaren 27an, ebazpena eman zen (16/297P Dekretua), zeinak, zuri dagokizunez, eduki hau baitu:

Udal honek jakin du, A. H. S. C.k, Goikolarra plaza, 14 - 2.a. esk. etxebizitzaren alokairu kontratuaren titularrak 2016ko irailaren 14an aurkeztutako idazkiaren bidez, Najem Boukedia El Mahfoud arauz kanpo erroldatuta dagoela biztanleen udal erroldan, ez baita bizi etxe horretan eta, hortaz, ez ditu betetzen uztailearen 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren bidez onartu eta abenduaren 20ko 2612/1996 Errege Dekretuaren bidez aldatu zen Biztanle eta lurralde mugen Arautegiaren 54. eta 68. artikuluetan ezarritako baldintzak.

Ikusirik udaltzainek horretarako egindako txostena, ondorioztatzen da pertsona hori ez dela bizi helbide horretan.

Bat etorri arautegi horren 72. artikuluan xedatutakoarekin eta Estatistika Institutu Nazionalako lehendakariak eta Eskumenak Autonomia Erkidegoekin eta Toki Erakundeekin Koordinatzeko zuzendari nagusiak biek batera 2015eko urtarrilaren 30ean emandako ebazpenarekin, zeinaren bidez udalei jarraibide teknikoak ematen baitzaizkie udal erroldak kudeatzearen gainean eta, zehazki, arauz kanpo erroldatuta egoteagatik bajak ematearen gainean, eta, orobat, aplikazio orokor eta bidezkoa dagokion gainerako legeriarekin, alkate honek, aitortzen zaizkion ahalmenak erabiliz, xedatzen du:

Lehenengoa. Aurkeztutako eskaera izapidetzeko onartzea, eta ofizioz espedientea irekitzea Amurrioko Udalaren biztanle erroldan baja emateko behean zehazten den pertsonari, arauz kanpo erroldatuta baitago:

IZENA ETA ABIZENAK	AGIRIA
Najem Boukedia El Mahfoud jauna	79.207.864-G

Bigarrena. Interesdunari ebazpen hau jakinaraztea udalerrri honetan izan duen azken helbide ezagunean, hamabost eguneko epean aukera izan dezan egoki jotzen dituen alegazioak, agiriak edo frogak aurkezteko eta udalaren biztanle erroldan zuzen erroldatuta dagoela egiaztatzeko, edo errolda egoera erregularizatzeke, udal honi jakinaraziz zer helbidetara aldatu den edo gaur egun zein udalerritan bizi den.

Alkateak agindu eta izenpetzen du. Amurrio, 2016ko irailaren 27a. Idazkari naizen aldetik, fede ematen dut.”

Alkatearen eta idazkariaren izenpeak eta errubrikak, biak irakurtezinak.
Jakin dezazun eta dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten dizut.”

Amurrio, 2016ko urriaren 25a

Alkate lehendakaria

JOSUNE IRABIEN MARIGORTA